

**HEZKUNTZA SAILA**

Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de
Universidades e Investigación
Dirección de Política y Coordinación
Universitaria

EBAZPENA, 2023ko abenduaren 20koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2023-2024 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetzak beka eskaeren ebazpena ematen du (A modalitatea).

Hezkuntza sailburuak, 2023ko ekainaren 20ko aginduaren bitartez (ekainaren 29ko EHAAn argitaratua), unibertsitateko ikasleentzako Ikasiker lankidetzak beka deialdia egiten zuen 2023-2024 ikasturterako. Agindu horrek, onartutako oinarrien 2.1 artikuluan bekaren A Modalitatea jasotzen du: ikasturtean zehar egin beharreko lankidetzak.

Agindu horren 15.2 artikulua ezartzen duenez, A eta B modalitatearen ebazpenak lau zerrenda izango ditu: eskabide esleipendunak, ez-esleipendunak, beka eskuratzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten arren, beka lortzeko ordena-zenbakia lortu ez duten eskabideen zerrenda (erreserbak) eta eskaeren zerrenda, lankidetzak-proiektua egiteko eskatzaileak hautatutako ikertaldeak edo ikerketa-zentroen arabera ordenatuta.

Hautaketa-batzordeak, 2023ko abenduaren 20an, Ikasiker lankidetzak bekarako A modalitatean aurkeztutako eskaeren behin betiko ebazpen proposamena aurkeztu dio Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariari.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa: Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena zenbakia dutenei beka ematea, zenbatekoa: 300.000 euro, A Modalitatean (I. Eranskina).

Bigarrena: Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileei beka ukatzea, A Modalitatean (II. Eranskina).

Hirugarrena: Deialdi honetako beka eskuratzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten arren, beka lortzeko ordena-zenbakia lortu ez duten eskabideen zerrenda argitaratzea (III. Eranskina). Zerrenda horrekin erreserben zerrenda bat eratuko da; zerrenda hori baliatuko da uko-egiteren batengatik bekaren bat libre geratzen bada beka hori emateko.

Laugarrena: Ikertaldeak edo ikerketa-zentroen arabera ordenatutako zerrenda, eskaera adjudikaziodunak, ukatuak eta erreserbak jasotzen dituen argitaratzea (IV. Eranskina).

Bostgarrena: Ebazpen honen kontra, gorako errekurtoa jarri ahal izango du interesatuak, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari zuzenduta eta hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.

Miren Artaraz Miñón
UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA